| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| A1 | A2 | B1 | B2 | C1 |

IZEN SINTAGMA

1. Alderdi fonologiko eta ortografikoa

- Euskal fonema bereziak: TZ, TX, TS, Z, S, X, IL >(LL), IN >(Ñ), -K
- Asimilazioak eta elipsiak: (ez dira/*eztia*, ez naiz/*enaiz*, badator /b*aator*, ez ba/*ezpa*, ekarri ditu/*ekarrittu*); bokalak elkartzeko arauak (A+A = A, E+E = EE, eliza + a = eliza, seme + ek = semeek…)
- Doinuera: euskal azentua eta intonazioa
- Ortografia:
  - Z, S eta X bereizi;
  - TZ, TS eta TX bereizi;
  - Hak;
  - berezko A duten hitzak (*Balea, eliza*…)
- Puntuazio markak
- Maileguen idazkera
- Hitz elkartuen idazkera
- Laburtzapenak: siglak eta laburdurak
- Onomastika: herritarren, hizkuntzen eta herrien izenak

2. Izenak, deklinabidea eta galdetzaileak
- Izenak:
  - propioak eta arruntak bereizi (*Uharten / uhartean*…)
  - zenbakarriak eta zenbakaitzak bereizi (*hamar liburu / olio asko*…)
  - neurgarriak eta neurgaitzak bereizi (*bost litro olio / maitasun handia*…)
  - bizigabeak eta bizidunak bereizi *( kalera / emakumearengana*…)
  - Izen bakunak, eratorriak eta konposatuak bereizi (*etxe / dirutza / liburu-denda*…)
  - Jeneroa (*zaldia / behorra, alkatea / alkatea, tonto / tuntuna*…)
- deklinabidea
  - Absolutua NOR (*bost etxe, gizona, haurrak*…)
  - Ergatiboa, NORK (*bost etxek, gizonak, haurrek*…)
  - Datiboa, NORI (*bost etxeri, gizonari, haurrei*…)
  - Inesiboa, NON, NOIZ, NORENGAN (etxean, igandean, *bost etxetan, gizonarengan, haurretan, haurrengan*…)
  - Genitibo edutezkoa, NOREN (norena, gizonaren lana, *bost etxerena, gizonarena, haurrena*…)
  - Adlatiboa, NORA, NORENGANA, ZERTARA (*bost etxetara, gizonarengana, haurrengana, filma ikustera*…)
  - Ablatiboa, NONDIK, NOIZTIK, NORENGANDIK (lanetik, gaurtik, *bost etxetatik, gizonarengandik, haurrengandik*…)
  - Soziatiboak, NOREKIN (*bost etxerekin, gizonarekin, haurrekin*…)
  - Genitibo leku-denborazkoa, NONGO (Iruñeko, kaleko, *bost etxetako*…)
  - Destinatiboa, NORENTZAT, NORENDAKO (*bost etxerentzat / etxerendako, gizonarentzat / gizonarendako, haurrentzat / haurrendako*…)
  - Motibatiboa, NORENGATIK, ZERGATIK (*bost etxerengatik, gizonarengatik, haurrengatik*…hargatik)
  - Instrumentala, ZERTAZ (zerez, gorriz, *bost etxez, gizonaz, haurrez*…)
  - Partitiboa, -RIK (*etxerik, gizonik, haurrik*…) partitiboa baiezko esaldietan (azken partiduan joko onik ikusi dugu)
  - Adlatibo bukatuzkoa , NORAINO, NOIZ ARTE, NORENGANAINO (kaleraino, bihar arte, *bost etxetaraino, ginonarenganaino, haurrenganaino*…)
  - Adlatibo norabidezkoa: NORANTZ, (etxerantz, *bost etxetarantz*, …)
  - Prolatiboa, -TZAT (*atezaintzat, tontotzat*…)
  - birdeklinabidea:
    - NORAKO (*norako eskailera da hori? Mendirako botak*…)

  - NORANZKO (*noranzko bidea, Ebroranzko urak…*)
  - NORAINOKO (*heriotzarainoko sufrimendua…*)
  - NONDIKO (*nondiko geziak, ezkerretiko kamioia…*)
  - NOREKIKO (*zurekiko negozioak, harekikoak bukatu…*)
  - ZEREZKO (*horri buruzko informazioa, artilezko jertsea…*)
  - NORENTZAKO (*amarentzako loreak…*)
  - NORENGANAKO (*zureganako maitasuna…*)
  - NORENGANDIKO (“*Guru” harengandiko ikasketek eragin handia izan dute...*)
- NONGO/NOREN bereizi (*elizako isiltasuna / elizaren isiltasuna*)
- NONGO /NOREN + deklinabidea ( *elizakoari / elizarenari…*)
- Adizlaguna + KO: zeren aldeko, zeren kontrako…deklinaturik (*horren aldekoek, haren kontrakoei…*)
- Mugagabea orokorrean: noiz erabili behar den eta mugagabearen formak ( *etxeTAN, MartinI…*)
- Plural hurbila –ok (*Zu eta biok, gizonoi, emakumeok…*)

- galdetzaileak
  - Zertan, nola eta nolakoa(k) bereizi (*beti alaiA da, gaur ez dago alai_, orain goibelTZEN ari da*)
  - zeri buruz, (mendiari buruz, *Saharari buruzko dokumentala, zure aitari buruz mintzatu da*…)
  - zertarako, zertarakoak (*ikasteko, ongi jateko aholkuak / ongi jatekoak*…)
  - zenbat, zenbatek, zenbati, zenbat ordutan, zenbana (*zenbat ikaslek / zenbatek gainditu dute*…)

3. Izenordainak
   - Pertsona-izenordain arruntak (*ni, zuri,hark, gure...*)
   - Forma indartuak: (*neu, zeu, geu, geure, zeuek, zeuen, neroni, neronek, bera, bere, beren, beraien, ni neu gisakoak*)
   - Izenordain zehaztugabeak:
     - *inor ez, ezer ez, inon ez, inora ez, inondik ez…*
     - *zerbait, norbait, nonbait, zerbaitek, norbaitek, zerbaiti, norbaiti…*
     - *edozein, edozeinek, edozeini, edonor, edonork, edozer, edozerk*
     - *zer edo zer, norbera, nor bere, nor edo nor, nehor, deus (ere), bakoitza, beste*
   - Bihurkariak: *X-en burua,* (neure burua, bere burua, neure buruari…) *neure artean, berekin, beretzat…*
   - Elkarkariak: *elkar, elkarri, elkarrekin, elkarren ondoan, elkarren berri, elkarren zain, elkarrekiko, bata bestea (batak besteari laguntza handia eman diote, batak nahi du, baina besteak ez); biak ala biak…*

4. Determinatzaileak eta erakusleak
   - Erakusleak ( *hau, hori, bera , hura... hauek, horiek, haiek, honetan, horretan, hartan... hauetan, horietan, haietan, honek, horrek, hark... hauek, horiek, haiek, honetara, horretara..., honekin, horrekin..., honelako, horrelako..., honetako, horretako..., honi..., hauei..., honentzat..., hauentzat..., honengana..., hauengana...; honengan…, hauengan…; honengatik…, hauengatik…*)
   - Erakusleen deklinabidea **honekin, harena**
   - Erakusle indartuak: (*hauxe, honexek, horrexek, horixe, hauexek, horiexek, huraxe.../"ber", bera, bere-ren erabilera,* hura eta beraren erabilera bereizi; *berauek, beroriek...*)
   - Zenbatzaile zehaztuak:
     - zenbakiak (0-100, 0-1.000),
     - bat eta a bereizi (institutu berria behar dugu, beste institutu bat behar dugu…)
     - Ordinalak (lehena, bigarrena,…hogeigarrena…)
     - Zatikiak ehunekoak, eragiketa matematikoak,: (*erdi, heren, laurden, bosten, seiren*...*batuketa, biderketa*...*gehi, ken, berdin*...*ehuneko bostek, hamarretik bik*…)
     - Banatzaileak:(*zenbana? Bana, bina, -naka, -ko:aulki banatan, sudur bana, hamarreko, gelako bi ordezkari, gela bakoitzeko bi ordezkari…*)
     - Esapide zenbait: *-(r)en bat, aita eta biok, hogei bat, hogei inguru, baten bat, bizpahiru, hiruzpalau, gutxi gorabehera, ehunka, milaka,*
     - zenbakien esanahia: *bost axola, hamaika arrazoi,*
     - Zenbatzaile zehaztugabeak: *batzuk, gutxi, nahikoa, asko, pixka bat, ugari, hainbeste, apur bat, makina bat, dezente, samar, anitz, arras, franko, hainbat, honenbeste, horrenbeste, hainbeste*
   - Zenbatzaile orokorrak: *dena, guztia, oso*

- Zenbatzaile eta neurriak: *bi urteko umea, litro bat esne, baso bat ur eta ur baso bat, orduak (zer ordutan, ,zer ordutatik zer ordutara…), data (hilabeteak, urtaroak), telefono zenbakiak,*

5. Adjektiboak eta adberbioak
   - Gradu-markak: -ago, -egi, -en, askoz –ago (*zoriontsuagoa izango da, gehiegi jan dugu, politena da hori, askoz larriagoa da…gehiegi, gutxiegi, larregi, areago*…)
   - Atzizki graduatzaileak: -txo, , -xe, (gutxitxo, gehitxo, iltze hori sartuxe dago…)
   - Graduatzaileak: nahiko, oso, erabat, biziki, gogotik, zeharo, sobera, txit, izugarri, ikaragarri, arras, guztiz, arrunt, franko, lar, sobera, samar, pixka bat eta samar bereizi (ekarri ur pixka bat gehiago, zoaz harantzago, garesti samarra da )
   - Aditz-partizipio deklinatua: *asmatua, asmatuari*; erreta eta erreak bereizi (*oilasko errea, oilaskoa erreta dago...)*
   - Leku aditzondoak: *hemen, hor, han*, **hona, horra, hara, hemendik, hortik, handik, hemengo, kanpoan, barruan, kanpora, barrura, urrun, hurbil**, *inongo, nonbait, edonon, -n zehar, inon, inon ez, edozein -tan, -tik kanpo, norabait. Indartuak: hementxe, hortxe, hantxe, bertan, hementxe bertan, bihar bertan, gertu*;,
   - Modu aditzondoak:honela, *horrela, hala, gaizki, ondo, ongi, poliki,bakarrik, korrika, ozta-ozta, ederki, ederto, edonola, nolanahi, nolabait, inola (ere) ,inolako, oinutsik eta gisakoak, blai, kili-kolo, hala-nola, orobat, sekulako. Indartuak: honelaxe, horrelaxe, halaxe*…
   - Denbora aditzondoak: **gaur, atzo, bihar, etzi, orain, gero, lehen, lehenago, berandu, laster, goiz,** *inoiz, inoiz ez, sekula ez, zazpiak jota, uda partean, gazte denboran, iaz , egunero (eta gisakoak), herenegun, berehala(xe), maiztasuna: hiru urtean behin, betiko*,
   - Iritzi aditzondoak: *agian, beharbada, dudarik gabe, noski, badaezpada, benetan, itxuraz, jakina, antza (denez), nonbait, dirudienez, gure aburuz, ageri denez*
   - Aditzaren graduatzaileak: *erabat, batere, guztiz, ikaragarri, zeharo, izugarri, gogotik, biziki*

6. Postposizioak
   - NOR edo partitiboa eskatzen dutenak: *gabe(dirurik gabe), falta(n) ur faltan, diru(rik) falta, dirurik ezean*
   - NOREN eskatzen dutenak: *aitzin, alboan, aldamenean, alde/kontra, aldetik, arabera, artean, aurka, aurrean/atzean,* **aurrera, aurretik,** *barne, barnean, barren, barruan / kanpoan, beharrean, bidez, bila, bitartez, bizkar, erdian, eske, esku,* **ezkerrean/eskuinean,** *gainean/azpian, inguruan, kabuz, kasa, kontu, menpe, ondoan,* **Ondora, ondotik,** *ordez, parean, truke, zain*
   - NORI eskatzen dutenak: *buruz, begira, esker*
   - NON eskatzen dutenak: *zehar, gora/behera*,( mendian gora, kalean behera…), *gaindi, barrena*
   - NONDIK eskatzen dutenak: *kanpo, at, landa*
   - Aditzaren ondoko partikulak: *gutxienez, beharrean*
   - ZEREZ eskatzen dutenak: *bestalde, gain (mugaz bestaldean, diruaz gain…*

7. Hitz sortzaileak
   - Atzizkiak:
     - -aldi (zinemaldi…)
     - -ari (kirolari…)
     - -aro (nerabezaro…)
     - -dun (euskaldun, txapeldun…)
     - -dura (ehundura…)
     - -era (errusiera, …)
     - -erraz (konponerraz…)
     - -ezin (konponezin…)
     - -gai (ezkongai…)
     - -gailu (garbigailu…)
     - -gaitz (neurgaitz…)
     - -garren (zortzigarren…)
     - -garri (interesgarri…)
     - -gile (etxegile…)
     - -gintza (etxegintza…)

- -go (etsaigo…)
- -gune (industriagune…)
- -ka (korrika…),
- -kada (betekada…)
- -kari (egunkari…,
- -kera (ikuskera…)
- -keria (pellokeria…)
- -keta (atxiloketa…)
- -ki (goxoki…),
- -kin (bihurkin…)
- -kizun (ikuskizun…),
- -koi (neurekoi…)
- -kor (sarkor…)
- -kote (lodikote…)
- -kuntza (ebakuntza…)
- -le (idazle…),
- -men/-pen (ulermena…),
- -oro (aldioro…)
- -ska (gorriska…)
- -tar (uhartetar…),
- -tasun (batasuna…),
- -te (elurte…)
- -tegi (barnetegi…),
- -ti (kakati…),
- -tsu (garrantzitsu…),
- -tzaile (zulatzaile…),
- -tzar (harritzar…)
- -xe (handixe…)

- Aurrizkiak:
  - anti (antikristo…)
  - aurre-, (aurrekontu…)
  - ber- /bir- (berresan, birfindu…)
  - des-, (desegin…)
  - kontra- (kontraeraso…)
  - ez- (ezbehar…
  - sasi-(sasieskola…)
- Hitz elkartuak:
  - alde (haizealde…)
  - gabe (babesgabe…)
  - -gura (logura…)
  - -kide, (jolaskide…)
  - -leku (babesleku…),
  - toki (jolastoki …)
  - -zain, (kutxazain…)
  - -zale, (pilotazale…)
  - -zulo (etxezulo…)
  - Errepikapena (gorri-gorria, ikusi-makusi, zaldiko-maldiko…)
  - Izena + izena (kirol-denda, mari-mutila …)
  - izena + adjektiboa (sudurluze…)
- Mailegu hitzak. Idazkera, aldaketa fonetikoak…

ADITZA

1. Aditzaren ezaugarriak
   - Aditzaren egitura: aditz-oina, partizipioa, aditz-izena (*etor, etorri, etortzea*)
   - Aditz jokatuak eta ez jokatuak ( *zuk egin duzu, zuk egina da…*)
   - Aditz trinkoak eta aditz perifrastikoak bereizi (*dator, etorri da…*)
   - Aditz iragangaitzak eta iragankorrak nor eta nor-nork aditzak bereizi (*sartu da, sartu du…*) nor, nor-nork, nor-nori, eta nor-nori-nork aditzak bereizi (*sartu da, sartu du, sartu dio, sartu zaio…*)
   - Hika eta zuka bereizi

2. Indikatiboko orainaldia
   - NOR: izan (*naiz, da…*) eta trinkoak: egon, joan, ibili, etorri,) etzan (*dago, doa, dabil, dator, datza…*)
   - NOR-NORK ukan (*dut, ditut,* …*nauzu, gaituzte*(pertsona guztiak) …) eta trinkoak: eduki, jakin, ekarri, eraman, erran, irudi, iraun, erabili ,jardun, eroan (*dauka, daki, dakar, darama, dio, dirudi, dirau, darabil*, dihardugu, daroa..)
   - NOR-NORI izan (*zait, zaizkit*) eta trinkoak: ibili (*dabilkio…*), joan (*doakio*…), egon (*dagokio…*) jario (*dariola*)
   - ZER-NORI-NORK ukan (*diot, didazu*…dizkiguzu, dizkiete…) eta trinkoak iritzi (*deritzogu*)

3. Indikatiboko lehenaldia
   - NOR: izan (*nintzen, zen…*) eta trinkoak: egon, joan, ibili, etorri, etzan (*zegoen, zihoan, zebilen, zetorren,* pertsona guztiak*, zetzan*…)
   - NOR-NORK ukan (*nuen, nituen,* …*ninduzun, gintuzten*…, pertsona guztiak) eta trinkoak: eduki, jakin, ekarri, eraman, erran, irudi, iraun, , erabili (*zeukan, zekien, zekarren, zeraman, zioen, zirudien, zirauen*...) eta pluragileak (zeramatzaten…)
   - NOR-NORI izan (*zitzaidan, zitzaizkidan…,* pertsona guztiak) eta trinkoak: ibili (*zebilkion…*), joan (*zihoakion…*), egon (*zegokion…*) jario (*zeriola*)
   - ZER-NORI-NORK ukan (*nion, zenidan…,* pertsona guztiak)

4. Baldintzazko adizkiak
   - NOR alegiazkoa eta lehen aldia: izan (*balitz, litzateke*…*izan balitz, izango zen,*) eta trinkoak: egon (*balego, legoke…*), ibili (*balebil, lebilke…*) , etorri (*baletor, letorke*…)
   - NOR-NORK alegiazkoa eta lehen aldia: ukan (*balu, luke…bagintuzu, gintuzkezu*…*izan balu, izango zuen*) eta trinkoak:jakin (*baleki, baneki…*)
   - NOR-NORI alegiazkoa eta lehen aldia (*balitzait, litzaidake*…*izan balitzait, izango zitzaidan*)
   - ZER-NORI-NORK alegiazkoa eta lehen aldia (*balit, banio, balizkit, banizkio*…*izan banio, izango nion…*)

5. Agintera
   - Partizipio burutua: (*Etorri! Segi!...)*
   - NOR: izan (*zaitez, zaitezte*) eta trinkoak: egon (*zaude…*), joan (*zoaz…*), ibili (*zabiltza…*)
   - NOR-NORK:ukan, (*ezazu, itzazu*…*nazazu, gaitzazu…*) eta trinkoak ahoz (*egizu, jakizu,*
   - NOR-NORI-NORK ukan (*iezaiozu, iezaizkidazu…*forma guztiak) eta trinkoak ahoz: (emadazu, *egiozu, eutsiozu, …*)
   - 3. eta 1. pertsonako aginkera: (*dadila,gaitezen, dezala, dezagun…*), eta trinkoak: (*goazen!, gauden!dagoela, doala,…*)

6. Ahalezko adizkiak
   - NOR: izan orain, lehen eta alegiazkoa (*naiteke* pertsona guztiak, *nintekeen, ninteke*…)
   - NOR-NORK ukan orain, lehen eta alegiazkoa (dez*ake* pertsona guztiak, *zezakeen, lezake… nazakezu, nintzakezun, nintzakezu…*)
   - ZER-NORI-NORK orain, lehen eta alegiazkoa (*diezaioket, niezaiokeen, niezaioke*…)
   - Ahala eta ezina aditz-izenez egina:-t(z)erik/-t(z)ea izan/ukan/egon (*ez dago sartzerik, joatea badu…*)

7. Subjuntiboa
   - NOR orainaldia eta lehenaldia izan: (*nadin, nendin*…)

- NOR-NORK orainaldia eta lehenaldia ukan (*dezadan, nezan…gaitzaten, gintzaten…*)
- NOR-NORI orainaldia eta lehenaldia (*dakidan, zekidan*...)
- NOR-NORI-NORK orainaldia eta lehenaldia (*diezaioten, ziezaioten*...)

8. Aditz-lokuzioak
   - Ari izan, bizi izan, nahi izan, balio izan, behar izan, ahal izan, ezin izan **Egin nahi, egin behar, joan behar, joan nahi, erosi nahi, erosi behar…lehen aldian**
   - Aditz lokuzioen aspektua: (*nahi izan, nahi izaten,nahi, nahi izango / nahiko*)
   - Ezezkoak eta aspektuak: (*ez dut erosi behar izan…*)

9. Aspektua
   - Orain eta iragan burutua: (*joan naiz/nintzen…*)
   - Orain eta iragan ez burutua: (*joaten naiz/ nintzen…*)
   - Gertakizuna (*joango naiz, joango nintzela esan nuen…*)
   - Orainaldiko eta lehenaldiko puntukaria: trinkoetan eta Ari aditza (*egiten ari naiz, egiten ari nintzen, nabil, nenbilen*...)

10. Aditz-izena
   - -tzea, -tzeko, -tzera, -tzetik ((**komenigarria da korrika egitea, kaltegarria da asko jatea** *egitea gustatzen zaio*, nahi eta nahiago izan, ez, espero dut, *egiteko esan diot,joateko prest dago,e, egitera animatuko gara, egitetik libratu gara*...)
   - -tzen **jakin, hasi eta ikasi** aditzekin: (hasi naiz idazten, badakizu kantatzen, ikasiko dugu josten…), *ahaztu zaio egiten / egitea…*)
   - -tzeak, -tzeari (*egiteak jartzen nau, egiteari utziko dio…*)
   - -tzearen, -tzearekin, -tzeaz, (*egitearen garrantziaz, egitearekin batera, egiteaz harro dago…*)
   - -tzeraino, tzerainoko (*hiltzeraino estutu, lehertzeraino barre egin…*)

11. Bestelako aditzak:
   - Aditz eragileak: behartu, arazi, eragin (egoerak behartzen gaitu, eginarazi diote, barre eragin dio…)
   - Pasiboa: partizipioa + A deklinatua (etorria, etorriak, etorriari…)
   - Hika tratamendua
   - Aditz multzoko partikula modalak: bide(jakin bide genuen), ei, omen (herri hartan gizon petrala bizi omen zen) eta ote (nor ote da ordu hauetan?)
   - Nori eskatzen duten aditzak
   - Hitanoa: erregistro ezberdinak (ulermen mailan)

SINTAXIA

1. Joskera
   - Perpaus bakunaren ordena:
     - Baiezkoak (Koldo gaur goizean etorri da / gaur goizean Koldo etorri da),
     - Ezezkoak (gaur goizean ez da Koldo etorri / Koldo ez da gaur goizean etorri),
     - Galdezkoak (nor etorri da?, Koldo etorri *al* da?).
     - Galdegaia aditza bera denean (Koldo azkenean etorri egin da, etorri ere etorri da),
     - Galdegaia aditzaren baietza edo ezetza denean (etorri da ala ez? Bai, etorri da. **Ba**dator trena…),
     - Galdegaia ezezko perpausetan (Gizon hau etorri ere ez da egin; gizon hau etorri ere ez da etorri.)
     - Galdegaia erakuslea denean ( horixe esan zuen…)
     - Galdegaia adberbioa denean (hementxe zeuden poltsak)
     - Galdegaia izenordaina denean (neroni joango naiz…)

2. Perpaus elkartua eta juntagailuak
   - Emendiozkoak:
     - eta (baita…ere, eta…ere bai) (Koldo etorri da eta Miren joan da, Koldo etorri da eta Miren ere bai / baita miren ere…) eta guzti (txapel eta guzti etorri da)Eta juntagailua eta deklinabidea ( Mikel eta Anek egin dute / Mikelek eta Anek egin dute, haur eta nerabeen artean / haurren eta nerabeen artean…),
     - ez ezik (Kafea ez ezik tostadak ere hartuko ditut…)
     - ez bakarrik (ez bakarrik….ere), (ez bakarrik kafea, tostadak ere hartu zituen…)
   - Hautakariak:
     - Edo (bi edo hiru liburu ekarri ditu, zinera joan edo etxean geratu; zer nahiago duzu?…)
     - Edota (Andonik esan du bilerara etorriko dela edota, bestela, telefonoz joko digula)
     - Ala (zinera joan ala etxean geratu; zer nahiago duzu?)
     - zein, nahiz, (hizkuntza bat nahiz bestea, atorra hori zein bestea…
   - Aurkaritzakoak:
     - baina, (euria ari du, baina ez naiz bustiko)
     - baizik, baino, (ez da alaba etorri, ama baizik, ez da alaba etorri, ama baino)
   - Banatzaileak:
     - bai… …bai, ez… …ez, (bai goizean eta bai arratsaldean ematen ditugu eskolak, ez du jan eta ez du edan…)

3. Lokailuak
   - Emendiozkoak:
     - ere, gainera, bestalde, halaber, (herriko plaza handia da. Ederra ere. / Ederra, gainera. / Ederra, bestalde. / Ederra, halaber. Halaber, 6000 euro eskuratu zuen. Orobat, 6000 euro eskuratu zuen. )
     - behintzat, bederen, behinik behin / gutxienez, (gu behintzat / bederen / behinik behin joango gara. Seik gutxienez ez dute gainditu.)
     - era berean, modu berean (Era berean, esan dezakegu eguraldi aldaketak eragina duela…)
   - Hautakariak:
     - bestela, osterantzean, (Zoaz zu, bestela ez dute bukatuko; eskerrak etorri zaren, osterantzean…)
     - gainerakoan, (Los Angeles hiri zaratatsua da, gainerakoan oso atsegina)
   - Aurkaritzakoak:
     - Ordea, berriz, ostera, aldiz (ni zurekin joango naiz; aita, ordea, etxean geratuko da); aitzitik ( ez egin gogor kontrarioari, aitzitik, saiatu haren ikuspuntua ulertzen),
     - Izan ezik (zu izan ezik, beste guztiak joan dira)
     - Alta (edariez ez dut ezer esan; alta, edanak ditut trago batzuk.); alabaina (ez da oso hizlari ona, alabaina, ez da isiltzen),
     - dena den, dena dela, hala ere, hala eta guztiz ere, (polita da, hala ere, ez zait gustatzen…)
     - haatik / hargatik, horratik / horregatik, (hau ez da, horregatik, ohitura ona)
     - guztiarekin ere, (Guztiarekin ere, ezin dugu aipatu gabe utzi…); edozein modutan (Gizon hura, edozein modutan ere, harekin ezkontzeko prest zegoen); zernahi gisa (**Zernahi gisa**, gorria magenta eta horia nahastuz lor daiteke); nolanahi den (Nolanahi ere, ez dira gustura joango); edozelan ere…

- Ondoriozkoak:
  - Beraz (orain, beraz, behar dugu jakin), bada (ba) (Nor etorri da, ba?), hortaz (dirua ez zaio falta, hortaz, lagunak ere ez), orduan (zer ari zara, orduan, marmarrean?
  - honenbestez, horrenbestez, hainbestez (Base horren molekulak ez daude erabat disoziatuta, eta **horrenbestez** disoluzioan amonio…)
  - halatan, hala
- Kausazkoak:
  - zeren, zergatik, ze, (hori ez da harritzekoa, zeren, asteko atzerapena darama)
  - alabaina, (ongi portatzen dena ongi aterarako da; ez du, alabaina, zigorren beldurrik)
  - bada, (lehorte handia dago, bada, aspaldian ez du euririk egin.
  - izan ere, (lehorte handia dago; izan ere, aspaldian ez du euririk egin)
  - hain zuzen ere

- Testu antolatzaileak:
  - (alde) batetik… …bestetik
  - lehenengo eta behin, hasteko
  - azkenik, bukatzeko,
  - arestian esandakoa,
  - dagokionez, (lehenengo puntuari dagokionez esan behar dut…)
  - hori gutxi balitz bezala, (Eta **hori gutxi balitz bezala**, haurdunaldian *arazoren bat edo beste* izan zuela onartu du)
  - demagun (eman dezagun) (Demagun etxebizitza merkea aurkitzen dugula….)

4. Menderakuntza

- Adierazpen perpausak (konpletiboak):
  - -(e)la, (pozik dagoela esan du)
  - -(e)na, ( egia da oso pozik dagoena)
  - -(e)nik, (ez dut uste pozik dagoenik), -(e)nik eta –(e)la bereizi (ez nekien ezkondua zinela / ez dut uste ezkondua dela)
  - nola…-(e)n, (ikusiko duzu nola ez den horrela gertatzen)
  - horra non..., (horra non desagertu diren gure kezka guztiak)
  - bait, (harrigarria da ez baituzu halakorik sekula ikusi)
  - ezen... -(e)la / -(e)n, (ETB-k dio ezen bihar eguraldi ona egingo duela)
- Galde perpausak (zehar galdera):
  - (e)n, (ez dakit zer ordu den)
  - -(e)n ala ez,(ez dakit etorri den ala ez ), -(e)netz, (ez dakit etorri denentz)
  - ea, (galdeiozu ea zer nahi duen)
  - ote (ez dakigu zer egin ote duten)
- Subjuntiboko perpausak (desideratiboak):
  - iritzia –eN; (komeni da denok erne egotea / komeni da denok erne egon gaitezen)
  - nahia –eN, (nahi, nahiago, opa izan); (Osasunak irabaztea nahi dugu / guk irabazi nahi dugu)(ondo bizi zaitezen opa dizut)
  - eskaera –eN; (poliki ibiltzeko esan diet / poliki ibil daitezen esan diet)
  - agindua edo debekua –eN, -tzeko (joan dadila esan diot / joateko esan diot)
- Perpaus osagarri izenlagunak:
  - -eN, (badira oraindik gizakia Jaungoikoak egin zuen ustea duten asko)
  - -eLAKO, -eLAKOA, -eLAKOAN, -elako ustean.(kanpoan zinelakoan nengoen, hirian hobeki bizi daitekeelako ustea oso zabaldua dago)
- Harridura perpausak:
  - bai... –(e)la!, (bai ederrak direla!)
  - zein... –(e)n!, (zein itsusia den!)
  - a zer-nolako... –(e)n! ( a zer nolako tripa duen!)
  - hau da hau! (Hau da hau, agoantatu beharra!)
  - alfer hori! (mugi zaitez alfer hori!)
  - Zer arraio! (ez gara joango, zer arraio!)
  - Nola demontre?(nola demontre esan diozu hori?)
  - ea...-n!, (ea esnatzen zaren!)

    - eskerrak ...-n!, (eskerrak zu hemen zaren, bestela!)
    - beharrik ... -n!(beharrik ez den nagusia agertu!)
    - gaitzerdi (txapa istripua izan da besterik ez. Gaitzerdi!)
    - ez …-(e)nean (ene, errekaraino erori ez denean!
    - …, …-(e)nez (ongi ari gara, ari garenez!, ikusi dugu, ikusi dugunez!)
- Perpaus erlatiboak:
    - erlatibo erreferente gabe deklinatua: (kalea garbitzen duenA),
    - erreferentedun deklinatua (kalea garbitzen duen gizona / gizonari),
    - -tako/-dako, -takoa / dakoa, -(r)iko, (gaizki egindakoa…ikasleek antolaturiko festan)
    - zein erlatiboak, non... bait--(e)n, (Lizarrako festak, zeinetan emaztea ezagutu bainuen, oso festa onak dira,)
    - bait erlatiboak; (gizon bati gertatu zaio, hura ere ez baita guti harritu orduan, galdeiozu neska horri, ate ondoan baita)
    - Korrelaziozko perpausak: (zer ikusi, hura egin; Non eta baita musika, han ari da dantzan.)
- Konparaziozkoak:
    - Berdintasuna:
        - bezain (hori bezain polita da),
        - adina /beste, bezainbat/ (zuk adina urte ditu; hauetarik nahi adina ekarri),
        - bezala / moduan (zuk bezala egin dut, zure moduan egin dut / zuk egin duzun moduan egin dut) bezalakoa (zurea bezalako telefonoa erosi dut)
        - adinako, (nesken futbolari ez zaio behar adinako garrantzirik eman)
    - Desberdintasuna:
        - baino…ago(ak) (zu baino gazteagoa da, hori baino lasaiago dabil),(nahiago dut)
        - baino gehiago / gutxiago( Nik gehiago; zuk baino urte gehiago du) ,
        - ez bezala (zuk ez bezala egin dugu)
        - -rik …-enak, (mendirik altuena), ahalik eta…en (ahalik eta lasterren)
        - gehien / gutxien, (gehien gustatzen zaidana; hori gutxiena da)
    - konparazio erromanikoa:
        - hain… nola…bait / -eN (ez zara hain ona izan, nola baitzen zure laguna)
        - nola…hala, zenbat…hainbat (zenbat aldiz eskatu genion, hainbat aldiz ukatu zigun);
        - zenbat eta …ago (zenbat eta gutxiago jan, hainbat eta lodiago dago),
        - gero eta …ago (gero eta ederrago zaude, laztana).
        - Hain (ez dira hain onak), hainbeste (hainbeste informazioren artean ez dago jakiterik)
- Ondorio perpausak:
    - hain…non…bait / -eN, (hain zen toki ederra eta lasaia non paradisuan ginela uste baikenuen)
    - …hain da…, …(ez du lana bukatuko, hain da alferra)
- Baldintza perpausak:
    - ba, baldin ba, (igandean bada, joango naiz)
    - baldintza erreala eta alegiazkoa bereizi (astirik badut, joango naiz / oporrik banu, joango nintzateke)
    - -(e)z gero, ezean,, ezik, (euririk eginez gero, ez gara joango; legea bete ezean, ezin dira aurkeztu)
    - -t(z)ekotan.(joatekotan, abisatu)
    - non eta ez…
- Denborazkoak.
    - Aldiberekotasuna:
        - -nean, (etorri naizenean hemen zegoen)
        - -tzean (etortzean esango diot)
        - -(e)la, -(e)larik, (mutil gaztea zela alai bizi zen gurasoekin)
        - -etan (etortzen zarenetan, alaitzen nauzu)
        - -n guztietan, gehienetan, bakoitzean, aldiro (etortzen zaren guztietan alaitzen nauzu…)
        - -(e)neko (partida amaitzen zuteneko /zutenerako hasten zen beste bat),
        - -n orduko (zezena agertu zen orduko maingu guztiak sendatu ziren)
        - bezain laster, eta berehala (baimena dudan bezain laster joango naiz; etorri eta berehala joan da)
        - -tzeaz batera, -tzearekin batera (ohean sartzeaz batera / sartzearekin batera lokartu da)

    - Aurrekotasuna:

  - baino lehen, (patatak egosi baino lehen garbitu egin behar dira)
  - aurretik, aitzin (patatak egosi aurretik…)
  - t(z)erakoan, (patatak egosterakoan garbitu behar ditugu)
- ondokotasuna:
  - ondoren, eta gero, ostean (patatak egosi ondoren, utzi hozten)
  - -takoan, (patatak egositakoan…)
- iraupena adieraztekoak:
  - -(e)netik, (joan zenetik alaiago dago)
  - geroztik, -(e)z geroztik, (politikan sartu denez geroztik ez du ezertarako astirik)
  - arte, -n arte, harik eta...arte, -(e)no (txirrina jo arte, ez da inor mugitu; harik eta txirrina jo arte ez da inor mugituko, bizi naizeno kantatuko dut)
  - bitartean (lo egin bitartean ez dut kantatuko), -n bitartean ( bizi naizen bitartean kantatuko dut) –n artean (bizi naizen artean…)

- Modua eta neurria adierazteko perpausak:
  - -n neurrian, -(e)n heinean, (ahal izan dugun neurrian / heinean egingo dugu )
  - (e)nez, (zuk esan duzunez egingo dugu)
  - -(e)n aldetik, (irakaslea zaren aldetik esan dezakezu)
  - moduan, -(e)n antzera, -(e)n gisan, (zure moduan, zure antzera, zuk egin duzun antzera)
  - -(e)n arabera, (estatistiken arabera gizonek emakumeek baino…)
  - ba-... bezala, (bera basamortuko azken kokakola balitz bezala ibiltzen da)
  - bailitzan, bailiran, (basamortuko azken kokakola bailitzan)
  - ahala, (jendea sartu ahala eseri zen)
  - -ela / -elarik (txapela buruan zuela atera da Joxe, olioa dariola dago autoa)
- Helburuzkoak:
  - -t(z)era, (bazkaltzera joango naiz)
  - -t(z)eko, (hori lortzeko gogor entrenatu behar duzu)
  - -t(z)earren -t(z)eagatik (haren maitasuna izatearren prest zegoen…)
  - -(e)n+subjuntiboa, (errieta egin diete isilik egon daitezen)
- Kausazkoak:
  - horregatik, (horregatik esan dizut)
  - -(e)lako, (maite zaitudalako…)
  - -eta, (hartu bat edo,guretzat dira-eta.)
  - bait- (ez da etorri haserre baita) –zeren /ezen (eta)...bait-/-(e)n, (ez da etorri zeren haren amonaren auzokidearen txakurrari txerto berria ipini behar baitzioten)
  - -t(z)eagatik, (hitz egiteagatik zigortu dute)
  - -(e)la eta, (ataskua dela eta, ez da etorri)
  - -(e)la medio, (zure lagunen gestioak zirela medio lortu zuen beka hori)
  - -(e)la kausa/zio, (istripua dela kausa ez da etorri)
  - -(e)nez gero, (garesti samar daudenez gero, gutxi saltzen dira)
  - -(e)la...-(e)la (dela lana, dela haurrak, beti berdin, ezin lasai bizi)
- Kontzesiboak:
  - nahiz eta, (nahiz eta heriotza helduko zaidala jakin…)
  - -ba… ere, (argi esan bagenion ere, ez zuen kasurik egin)
  - arren, /-agatik /, (esan arren ez zuen kasurik egin) –n arren (esan zenion arren ez zuen egin)
  - -ta ere, --(r)ik ere (edozein trapu jantzita ere dotore dago)
  - datorrena datorrela; dakiena dakiela…egiten duzuna egiten duzula berdin da.